

## **MEDIATEKAKO ARAUDIA - ARAU OROKORRAK:**

- Garbitasun arrazoiak direla-eta, Mediatekan ezin da jan, ez edan.
- Jolas makinak, mahai jolasak eta era guztietako jostailuak debekatuta daude.
- Lan giroa errespetatuko da eta fondoan erabilera egokia egingo da. Hala ez balitz, Mediatekako arduradunak gela uztera behartu dezake araua betetzen ez duen pertsona.
- Hitz egiteko tonu baxua mantendu behar da, gainontzeko erabiltzaileei traba ez egitearren. Araua betetzen ari ez denari, arduradunaren 3. abisuan, Mediateka uztea behartuko zaio.
- Erabiltzaile batek dokumenturen bat galdu edo hondatuko balu berria ekarri beharko du.
- Mediateka erabili ahal izateko erabiltzaileak bertan inskribatuak egon behar dute.

### **ORDUTEGIA:**

ESKOLA ORDUTAN: 09:00 – 12:30 / 15:00 – 16:30

- **ESKOLAZ KANPOKO ORDUTAN:**
  - Eguerditan: Astelehenetik ostiralera 12:30etatik 13:30etara
  - Arratsaldetan: Astelehenetik ostegunera 16:30etatik 18:00etara

### **Eskola ordutan:**

Mediateka erabili nahi duten taldeak eguna eta ordua erreserbatuko dute. Irakasle batekin edo Mediatekako arduradunarekin joango dira, inolaz ere ikasleak bakarrik. Erreserba egiteko intraneten dagoen erreserba orria bete edo arduradunarekin adostu beharko da.

### **Orduz Kanpoko ordutan:**

- Eguerditan 4. mailatik aurrerako ikasleek erabili dezakete.
- Arratsaldetan ikasle guztiak, 7 urtetik beherakoak heldu baten laguntzaz.

### **MAILEGUAK:**

#### **Ikasleak:**

- Dokumentuak eraman ahal izateko Mediatekako txartela aurkeztu behar da.
  - Ikasleek 2 dokumentu eraman ditzakete gehienez.
  - Ikus entzunezko ale bakarria mailegatuko da, ostiraletik astelehenera.
  - Ez dira mailegatuko entziklopediak, hiztegiak, aldizkariak eta Mediatekak komenigarri erabakitzen dituenak.
  - Mailegua bi astetako izango da, beste bi asteko luzapena eskatu daitekeelarik. Mailegu luzapena ez da onartuko itzultzeko epea gainditu den kasuetan.
  - Ez dira mailegu berriak egingo aurretik mailegatutakoa itzultzen ez bada.
  - Itzulketetan ematen diren atzerapenak penalizazioa izango dute. Atzerapenak iraun duen egun kopuruetan ezingo da mailegurik egin.
  - Maileguak urrian hasi eta maiatzean amaituko dira.
  - Maileguak eta itzulketak eskola ordutik kanpo egingo dira.
  - Sistema informatikoa hondatzen denean itzulketak onartuko dira baina mailegurik ez da egingo.
  - Dokumentu bat hondatu edo galtzen denean, berria ekarri edo ordaindu egin beharko da.

Guraso edo ikasleen tutoreei idatziz jakinaraziko zaie.

#### **Irakasleak:**

- Dokumentuak eraman ahal izateko Mediatekako txartela aurkeztu behar da.
- Irakasleek 3 dokumentu eraman ditzakete gehienez. Bi liburu eta ikus entzunezko bat.
- Ez dira mailegatuko entziklopediak, hiztegiak eta Mediatekak komenigarri erabakitzen dituenak.
- Aldizkariak mailegatuko dira, azken argitalpenak izan ezik.
- Mailegua bi astetako izango da, beste bi asteko luzapena eskatu daitekeelarik. Mailegu luzapena ez da onartuko itzultzeko epea gainditu den kasuetan.
- Ez dira mailegu berriak egingo aurretik mailegatutakoa itzultzen ez bada.
- Itzulketetan ematen diren atzerapenak penalizazioa izango dute. Atzerapenak iraun duen egun kopuruetan ezingo da mailegurik egin.
- Maileguak irailean hasi eta ekainean amaituko dira.
- Dokumentu bat hondatu edo galtzen denean, berria ekarri edo ordaindu egin beharko da.

#### **Geletako maileguak:**

- Irakasleek 35 ale mailegatu ditzakete (30 liburu eta 5 ikus entzunezkoak).
- Maileguaren epea hiru hilabetekoa izango da.
- Mediatekako arduradunari eskaeraren zerrenda eman beharko zaio.

#### **INTERNET, CD-ROM**

- Erabiltzeko eskaera arduradunari edo irakasleari egin egin behar zaio momentuan.
- Ordenagailuak ordu erdiz gehienez erabili ahal izango dira.
- Ez da Mediteka kanpotik ekarritako CD-ROMen erabilera onartuko.
- Erosotasun arrazoiak direla eta, pantaila bakoitzean hiru pertsona baino gehiago ezin dira eseri.
- Ez da onartuko interneten erabilera Chat, MSN Messenger eta jolasetarako.
- Dokumentuak inprimatzeko arduradunaren baimena beharko da, beti ere ikasgaiei lotutakoak izango dira.

#### **IRAKASLEENTZAT FUNTZIONAMENDU ARAUAK**

- Ikasleei Mediatekara lagundu arduradunarekin adostutako orduan.
- Mediatekaren erabilera bultzatu ikasleen artean.
- Mediatekako arauak bete eta ikasleei bete arazi.
- Irakurzaletasuna bultzatzeko egiten diren jardueretan parte hartu.
- Material guztia Mediatekan zentralizatzea ahalbideratuko da.
- Beste tokitan dauden dokumentuak, tutoretzak, irakasle gela, musika gela, aholkulariaren gela... Mediatekako mailegu bezala erregistratuko dira.



- Mediatekatik liburuak atera ahal izateko, irakasleentzat ezarritako mailegu prozedura jarraitu behar da.
- Liburu eta bestelako materialak apaletan kokatzeko CDUak ezarritako irizpideak jarraitu dira. Beraz, erabili ondoren bere tokian utzi behar dira eta zalantza izanez gero horretarako prestatu den kutxan utzi.

#### **FONDOAREN ANTOLAKETA**

Materialen kokapena CDU jarraituz egiten da. Hiru multzotan zatitzen da:

- Literatura (Narratiba, Poesia, Antzerkia)
- Ezagupenezkoak.
- Ikus entzunezkoak.

Literaturari dagokionez Narratiba adinaren arabera sailkatzen da. Ezagupenezkoak CDUren arabera sailkatzen dira.

Mediatekako horma-irudi batetan CDUn sailkapena gaika nola egiten den eta gai bakoitzari dagokion zenbakia zein den aurki dezakegu. Koadro hau gida moduan erabili daiteke. Ikus entzunezkoak ere CDUa jarraituz antolatzen dira.

Txikientzako liburuak, sei urtetik beherakoentzat, trataera berezia dute, lurrean jarritako kutxetan kokatzen dira.

OPAC-a (Online public access catalog) Mediatekako ordenagailu batetan instalatuko da, bertan egin daitezke katalogatutako dokumentuen kontsultak.

#### **FONDOAREN HORNIKETA:**

Liburu eta ikus entzunezkoen erosketak Mediatekako arduradunak egingo ditu. Prozesua hau izango da:

- 1- Arduradunak aukeratutako materiala.
- 2- Irakasleek aukeratu eta arduradunarekin adostutako materiala.